



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2022ko otsailaren 1eko bilkura

Bi mila eta hogeita batgarren urtean eta 2022ko otsailaren lehenean, zortziak eta erditan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregulartasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatua : GOICOECHEA Iñaki.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : MATEO Jean François

Deialdiaren eguna : 2022ko urtarrilaren 28a

Afitxatze eguna : 2022ko urtarrilaren 28a

1.ERABAKIA ELIZAREN ARRABERRITZEARI BURUZKO BI ERABAKI GEHIGARRIEN IZENPETZEA

Nomenklatura : 1.1

HUTS BATEN ONDOTIK, AITZINEKO ERABAKIA EZEZTATZEN ETA ORDAINTZEN DU

Jaun Auzapezak Herriko Kontseiluari oroitarazten dio, 2020ko urriaren 23an, San Julen elizaren arraberritze obrei buruz pasatua izan zen kontratu publikoa :

- 1.lota- Paretan eta harri pikatuen garbitzea. Obren bi parteen gastuak (dena barne) : 212 056.83 €
- 2.lota- Teilatuaren arraberritzea (zureria, teilak). Obren lehen partearen gastuak (dena barne) : 394 231,20€

Auzapezak azaltzen du ondoko gehigarri hauek ekarri behar zaizkiola kontratuari :

1.lotari 2.gehigarria : bigarren lan parteari kendu

-Hego aldean isurbide-begi bat pausatzea

-Lan gehigarri batzu segurtatzea euri-uren sareari lotzea ez balitz egina

-hego aldea (elizbarnea eta gurutzadaren artean) hilerrietako euri-uren sareari lotzea

-ipar aldea (elizbarnea eta gurutzadaren artean) hilerrietako euri-uren sareari lotzea

2.lotari 1. gehigarria : lehen lan parteari gehitu

- segurtasunezko mako batzuen erostea eta finkatzea (hastapeneko kontratuan kondatuak ez zirenak)

Auzapezak gehigarriak aurkeztu eta, denek eztabaidatu ondoan, Herriko kontseiluak:
BAIMENA EMATEN dio auzapezari gehigarri horien izenpetzeko.

Kide kopurua : 15
Hor zirenen kopurua : 14
Balizko boz kopurua : 14
ALDE : 14
KONTRA : 0
ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineko egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2022ko otsailaren 1ean
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2022/02/17an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2022/02/17an.

